

Teknologia berrien onurak eta arriskuak


Sekuentzia honetan jarduera hauek egingo dituzu:

Gaira hurbiltzeko eta entzungo duzunaz aurreikuspenak egiteko, galderei erantzun.

Elkarrizketa entzun ondoren, eman diren erantzunak osatu.

Adostasuna eta ez adostasuna adierazteko zenbait egitura lantzeko, esaldiak moldatu.

Eman zure iritzia: taldean, gaiaren inguruko albisteak komentatu.



Teknologia berriak eta hezkuntza: lagun ala etsai?

Hezkuntzan gero eta gehiago erabiltzen ari dira teknologia berriak haurren eta nerabeen hezkuntza-sisteman, baina horrek baditu bere arriskuak ere. Honen gaineko elkarrizketa entzun aurretik, erantzun galdera hauei.

Irakurri beheko baieztapenak. Hauetatik zein dira zure ustez teknologia berriek duten alderik onena, eta txarrenea? Eman arrazoiak.

- Irakasteko baliabide ugari eta erakargarriak erabil daitezke: marrazkiak egiteko, hizkuntzak ikasteko,...
- Eskolan informazioa elkartrukatzeko eta komunikatzeko modu interesgarriak sor daitezke.
- Teknologia berriek errealitatearen zati bat erakusten dute.
- Askotan interneten bidez, eta sare sozialetan informazio gehiegi jasotzen da, eta dispersioa sor dezakete.
- Oso modu erakargarria da informazioa jasotzeko, baina pantailarekiko menpekotasuna sor dezake.

Osatu erantzunak



<https://labur.eus/bhaDZ>



Zer da "Pantallas Amigas" eta zertan laguntzen dute? Ekimen bat da, haur eta nerabeen artean internet eta beste teknologia berriak seguru eta modu osasungarrian erabil daitezten sustatzeko. Ekimen honetako helburua da haur eta nerabeen artean internet eta gainerako teknologia berrien ___1___ sustatzea. Ekimen honen bitartez, interneten, sare sozialetan eta abarretan arazoak ekiditeko ___2___ garatzen laguntzen die, seme-alabei, gurasoei, eta irakasleei.

Nola egiten dute lan? Bi eratako lana egiten dute: batetik, ___3___ eta kurtsoak eta saioak eskaintzen dituzte eta bestetik, ___4___ sortzen dituzte jokoak, gidak, animazioak eta abar, beraiek erabiltzeko, baina baita internet bidez besteek ere erabil dezaketenak.

Zein adinetako jendearentzat lan egiten dute? Adin desberdinetarako: Lehen Hezkuntzako 4, 5, eta 6. mailatarako, eta ___5___ . Baina ematen dituzten aholkuak edozein adinetarako dira baliagarriak.

Zeinek egiten dizkiete galderarik gehien? ___6___ . Umeen artean, haurrek ere bai. Aldiz, nerabeek uste dute beraiek dena dakitela, ze, helduontzat teknologia berriak ___7___ direla uste dute.

Nolako galderak egiten dizkiete nagusiki? Helduek: nola babestu, ___8___ erabili behar diren, eta badago obsesio bat jakiteko nola kontrolatu edo filtratu daitezkeen umeek ikusten dituzten edukiak.

Zer dio Urkok gurasoek instalatu nahi izaten dituzten kontrol-sistemei buruz eta zein aholku ematen ditu? 5-7 urte bitarteko ume batentzat igual ___9___ izan daitekeela, baina 14-16 urte bitarteko nerabe batentzat honelako kontrol-sistema bat ezartzea ___10___ eta gainera alferrikakoa dela, ze, kontrol hori erraz saltatuko baitu. Eta aholku modura, jakinda edozer moduko edukiak aurkituko dituela interneten, erakutsi behar zaie ___11___ erabili behar duten informazioa bilatzerakoan, eta eduki desegoki baten aurrean nola jokatu erakutsi behar zaie.

- | | |
|--|----------------------------|
| 1) | (7) |
| ezagutza sakona | oso sakonak |
| erabilera osasuntsua eta segurua | gehiegizkoak |
| erabilera eraginkorra | urrunekoak |
| (2) | (8) |
| teknologiari buruzko ezagutzak | zein bilaketa-sistema |
| gaitasun digitalak | pasahitzak nola |
| gaitasun sakonak | nolako segurtasun-neurriak |
| (3) | (9) |
| etxez etxe ibiltzen dira | desegokia |
| unibertsitatez unibertsitate | gehiegizkoa |
| eskolaz eskola joaten dira | egokia |
| (4) | (10) |
| beraien ikastunitate propioak | oso arriskutsua dela |
| beraien hitzaldi espezializatuak | arauen aurkakoa |
| beraien baliabide propioak | ez dela batere praktikoa |
| (5) | (11) |
| Bigarren hezkuntzako zenbait mailatarako | zein bilatzaile |
| Bigarren Hezkuntzako maila guztietarako | zein irizpide |
| unibertsitateko maila guztietarako | nabigatzaile |
| (6) | |
| Gurasoek gehienbat | |
| Gurasoek oso gutxitan | |
| Zenbait gurasok gehienbat | |

Nola adierazi adostasuna edo ez adostasuna

Gai bati buruzko iritzia emateko eta adierazi behar dena aberatsagoa izateko, esapide desberdinak erabiltzea komeni da. Behean dituzu horietako batzuk. Irakurri beheko baieztapenak eta aldatu esaldiak parentesi arteko egitura erabiliz. Erreparatu adibideari.



Teknologia berriak hezkuntza-sisteman gehiago erabili behar lirateke.

Uste dut/ Iruditzen zait teknologia berriak hezkuntzan gehiago erabili behar liratekeela.

Ez dut uste teknologia berriak hezkuntzan gehiago erabili behar liratekeenik.

1. Teknologia berriei esker, irakasteko baliabide erakargarriak erabil daitezke. (Iruditzen zait)
2. Teknologia berrien bidez informazioa modu erakargarriagoan lantzen da. (Ez dut uste)
3. Pantallas amigas-ekoek lan interesgarria egiten dutela eskolako gaztetxoekin. (Esango nuke)
4. Garrantzitsua da gurasoek teknologia berriei buruzko informazioa izatea. (Uste dut)
5. Sare sozialak eta interneta gaztetxoentzat arriskutsu bihur daitezke. (Ez zait iruditzen)
6. Pantallas amigas-ekoek ematen dituzten aholkuak guraso askorentzat baliagarriak dira. (Ziur nago)

Ados al zaude?

"Gurasoen % 92,2k ziurtatu dute kontrolatu egiten dutela Interneten seme-alabek ematen duten denbora, eta gehiengoak dio badakitela zertarako erabiltzen duten. Erdiek filtroak jartzen dituzte". Eta zuk egin duzu, edo egingo zenuke horrelakorik? Zein kasutan?

"Laster, botoi bat sakatuta, gurasoak eta seme-alabak harremanetan izango dira Filip eskumuturreko erloju eta telefono adimendunaren bidez. Gailu honen bidez, gurasoek segurtasun-eremu bat instalatu ahalko dute, eta, haurra bertatik ateraz gero, abisua helduko zaie". Honelako sistemak lagungarriak izan daitezke? ala gehiegizkoak dira, zure ustez? Albiste osoa hemen daukazu.

"Onerako zein txarrerako Internet oso eskura dago, eta Smartphone eta tableten erabilera hedatu denetik askoz ere gazteago hasten dira umeak teknologia horiek erabiltzen. Honek era askotako arriskuak ekar ditzake; eskolan ere askotan dispertsio handia eragiten du". Ados zaude? Eman zure arrazoiak. Albiste osoa hemen daukazu.

ADOSTASUNA ADIERAZTEKO:

Uste dut / Pentsatzen dut... (e)LA

Iruditzen zait.... (e)LA

Esango nuke..... (e)LA

EZ ADOSTASUNA ADIERAZTEKO

Ez dut uste.... (e)NIK

Ez zait iruditzen.... (e)NIK

Ez dut esan.....(e)NIK AURKAKO

ARRAZOIA EMATEKO:

Hala ere /Dena dela / Nolanahi ere.

Nahiz eta....

Ikastetxeetan teknologia berriein ohitzea gaztearentzat onuragarria da. Nolanahi ere, horrek arrisku handiak ekar ditzake.

Nahiz eta abantaila asko eduki, garrantzitsua da umearen kasuan, kontrol-sistemaren bat ezartzea.

Erantzunak

Osatu erantzunak

- | | | |
|-------------------------------------|---|-------------------------------|
| 1) erabilera osasuntsua eta segurua | (5) Bigarren Hezkuntzako maila guztietarako | (9) egokia |
| (2) gaitasun digitalak | (6) Gurasoek gehienbat | (10) ez dela batere praktikoa |
| (3) eskolaz eskola joaten dira | (7) gehiegizkoak | (11) zein irizpide |
| (4) beraien baliabide propioak | (8) nolako segurtasun-neurriak | |

Nola adierazi adostasuna edo ez adostasuna

1. Teknologia berriei esker iruditzen zait irakasteko baliabide erakargarriak erabil daitezkeela .
2. Ez dut uste teknologia berrien bidez informazioa modu erakargarriagoan lantzen denik .
3. Esango nuke Pantallas amigas-ekoek lan interesgarria egiten dutela eskolako gaztetxoekin .
4. Uste dut garrantzitsua dela gurasoek teknologia berriei buruzko informazioa izatea .
5. Ez zait iruditzen sare sozialak eta interneta gaztetxoentzat arriskutsu bihurtu daitezkeenik .
6. Ziur nago Pantallas amigas-ekoek ematen dituzten aholkuak guraso askorentzat baliagarriak direla

Transkripzioa

ESATARIA . Zenbat aldiz esan dugu gure artean etxeko txikienek teknologia guk baino errazago erabiltzen dutela, ohituagoak daudela edo agian iaioagoak direla. Mugikorra eskutan eman eta pantaila ukigarria manejatzen (erabiltzen) dutela haien hatzak izango balira bezala, edo etxeko telebista baita ere. Aparailu teknologikoak ez dira arrotzak haientzat, baina teknologian hezi egin behar da bertan arazo batzuk egon daitezkeelako, eta bueno, arazo hauei buruz hitz egiten, hitzaldiak ematen, eta hezten laguntzen, "Pantallas Amigas"-eko lagunek laguntzen dute, eta gaur gauean gurekin dugu Urko Fernandez, "Pantallas Amigas"-eko proiektu-burua.

ESATARIA- Kaixo Urko, ongi etorri.

URKO FERNANDEZ . Kaixo.

ESATARIA . Bueno, zer da "Pantallas Amigas"? Pixka bat esan dut nik, e ... teknologian hezten laguntzen digun talde bat zaretela, baina nola aurkeztzen duzue zuen burua?

URKO FERNANDEZ . Bueno ba, "Pantallas Amigas" ekimen bat da eta bere helburua ba, haur eta nerabeen artean internet eta beste teknologia berrien erabilera, seguru eta osasungarria sustatzea da, hau da, beraiek ba esan bezala ez? Pantaila ukigarriak, internet ... sare sozialak eta erabiltzen dutenean, ba e ... arazoak eta ekiditeko, ba gaitasun digital batzuk ba eskaintzen ditugu ez? Horiek garatzen laguntzen diegu, bai beraiei, bai irakasleei eta bai gurasoei ba bueno, beraiek ere bai parte har dezaten ez? Beraien seme-alaben edo, ikasleen hezkuntza digital honetan.

ESATARIA . Mmm, nola da zuen prozesua? Eskolaz-ekolaz zoazte? Elkarreterara? Gurasoekin harremanetan jartzen zarete? Nola da zuen egunerokotasun hori?

URKO FERNANDEZ . Bueno ba, bi eratako lana egiten dugu, ez? Alde batetik esan bezala ba eskolaz-ekolaz joan egiten gara eta ba ikasle, irakasle, guraso eta beste helduekin ba kurtsuak eta saiok eta eskaintzen ditugu baina gu ere bai "Pantallas Amigas" edo "Pantailak Lagunak" ekimenean gure baliabide edo gure errekurtsu propioak sortu egiten ditugu, ez? E ... jokoak, gidak, liburuak, animazioak, ez? Konzientziario kanpainak egiten ditugu, hau da benetako materiala sortzen dugu, guk erabiltzen duguna baina baita beste askok e ... interneti esker erabili dezaketena, ez?

ESATARIA . Esan duzu, e haurrei, nerabeei zuzentzen zaretela, suposatzen dut ez dela gauza bera izango sei urteko haur bati erakustea edo hamabost urteko gaztetxo bati, ezta?

URKO FERNANDEZ . Ez, argi dago e hamabi hamahiru urte betetzen dutenean beraien bizitza guztiz ezberdina dela, ez? Eta beraien beharrak ere bai eta eta ... ba interneten aurkitzen dituzten arriskuak eta arriskuak ere desberdinak izango direla, ez? Horregatik bueno ba gure materialak eta gure programak ba adin ezberdinetara e ... nolabait zuzenduta daude, ez? Gu normalean, lehen hezkuntzako laugarren, bosgarren zera mailako ikasleekin lan egiten dugu eta gero bigarren hezkuntzako kurtsu guztiekin, ez? Dena dela ba bueno, e gazteagoak ere interneten ibiltzen dira, argi dago bi hiru urterekin e ume batek, e hori ba pantaila ...

ESATARIA . Bai, telefonoa eskutan dute bai, bai

URKO FERNANDEZ hori da eta pantaila ukitu dezake eta argi dago ere bai heldu asko, batzuetan ume bezala ibiltzen direla interneten, ez? Beraz guk egiten ditugun, edo ematen ditugun aholkuak eta, pues ere bai baliagarriak izaten direla, ez? Eta adin, edozein adinetarako.

ESATARIA . Eta zeintzuk dituzte galdera gehiago txikitxoenek edo gazteagoek?

URKO FERNANDEZ . Bueno ba, "a priori" esaten den bezala ba gurasoek, ez?

ESATARIA . A gurasoek! Je, je, je.

URKO FERNANDEZ . Bai, helduek ... izaten dituzte. Gero umeen artean, haurrek badituzte galderak, e ... nerabeek uste dute dena dakitela, hori da problema, ez? Beraiek uste dute ba, bueno pues guk ezin diegula beraiei ezer irakatsi interneten, ze gu, suposatzen da beste belaunaldi bateko pertsonak garena ez? Eta orduan guretzako pues internet eta teknologia pues ja, gehiegizkoa dela ez?

ESATARIA . Galderekin ari ginen, zer nolako galderak egiten dituzte, ze suposatzen dut batzuk segurtasunari begiratuko diotela, beste batzuk aldiz nola entretenitu interneten, edo nola izaten dira galdera nagusienak?

URKO FERNANDEZ . Bai, argi dago, heldu batek galdetuko duela beti, aber ...

ESATARIA . Nola babestu?

URKO FERNANDEZ . Nola babestu, ze segurtasun-neurriak erabili beharko lirakeke, badago ere obsesio bat, ez? Jakiteko ea nola filtratu edo nola kontrolatu, ea kasu honetan umeek, zer nolako edukiak eta pues ikuskatzen dituzten

ESATARIA . Bai.

URKO FERNANDEZ interneten ez? Bueno, ba argi dago bost sei zazpi urteko ume bati holako filtro edo guraso-kontrol sistema bat instalatzea egokia izango litzatekeela baina e oso, ez da praktikoa pentsatzea ba hamahiru hamalau, hamabost urteko nerabe bati pues horrelako, ez , ez, mekanismo, segurtasun mekanismo ezartzea ze, argi da saltatu egin duela eta gainera ba hobe da kriterio izatea ez? Osea jakinda edozer moduko edukiak aurkituko dituela interneten, garbi esatea zer nolako kriterioak bilatu beharko litzuzkeen eta aurkitzekotan nola jokatu beharko lukeen, holako e, holako eduki ez egoki baten aurrean ea nola jokatu beharko lukeen, ez? Osea hobe da gaitasun horiek garatzea eta ez pentsatzea hainbeste kontrol-sistema bat edo filtro bat instalatzea.